





BARREN
TOKIKOM



MILAR BIRE

EZOHIKO GUTXIENENKO ZERBITZUAK

Behar-beharrezko etxetresna elektrikoak.
Ahal den neurrian, etxez etxeko zerbitzuari eutsiko diogu.
Arreta ematen jarraituko dugu telefono zenbaki honetan:

943 741 487

Apirilaren 24an kaleratuko dugu hurrengo BARREN astekaria

Elgoibarko Izarrako beharginok, tartean BARREN Komunikazio taldekook, hainbat neurri adostu ditugu koronabirusa hedatzea sahiesteko. Besteak beste, langileak ez diren beste pertsonekin ahalik eta zuzeneko kontaktu gutxien edukitzea da gure helburua. Asmo hori betetzeko hainbat neurri hartu ditugu:

Merkatu txikia, zorion agurrak eta gutunak:

- ➔ Telefonoz: **943 744 112**
- ➔ Whatsapp-er: **688 634 044**
- ➔ Eposta bidez: **barren@elgoibarkoizarra.eus**

Publizitatea eta eskelak/urteurrenak

- ➔ Telefonoz: **943 743 704 / 688 634 044**
- ➔ Eposta bidez: **barren.publi@elgoibarkoizarra.eus**



IBON SERRANO LASA

Ingeniaría



"Nolabaiteko disziplinan egon da gakoa"

Bai, niri ere latza egin zait itxialdia, aldarte gorabeheren menpe, agindu arbitrarioez sumindurik eta gure gizartearen patuaz ezkor.

Dena den, beste panorama batzuk irudikatuta, nire "hiperpribilegiatu" izaeraz jabetzen naiz; ez zait ezer falta izan, ikasketa politikak atera ditut eta pulstu honi nahiko ondo eutsi diodala deritot.

Uste dut neure buruari ezarri diodan nolabaiteko diziplinan egon dela gakoa. Halabeharrez, etxeko, ikastolako eta bestelako lanetan jarduteaz gain, gogoz kontra izan arren maiz, egunero dedikatu diot denbora gimnasiari (erran nahi baita, nire abizenak agintzen duenektz, gorputz serranotar bat mantentzea ez dela lan erraza, are gutxiago bizikleta estatiko edo arrabola barik etxean (hau idatzi dudanean).

Baina derrigorrezkoek at bide berriak ere jorratu ditut. Garrantzitsuena, irudigintzan sakontzea izan da. Duela zenbait astetako BARRENEko portada "koro-biral" apokaliptikoaz gain, bi marrazki bildumatxo osatzen saiatu naiz; alde batetik egungo giroa islatu nahiaz eginiko marrazki azkarrena, eta beste batetik, irudimena bidaiari, munduko zenbait baz-



ter bitxitako akuarela txikiena.

Jarduera honetatik beste adar interesgarri batzuk jaito dira zorionez; adibidez, hainbat sare sozialen funtzionamendua ezagutu izana. Azpimarratzekoa Instagramek sortarazi didan interesa, neuzkan aurreiritzi kritikoak zanpatuaz (egoki erabili ezkeronoski). Honekin batera gonbita @marrazkiak1970 kuxkuxea dezazuen ('like'-ak ongietorriak dira).

Irudigintzaz gain, halaber, udal liburutegitik mailegatutako hainbat liburu eta komiki irakurtzeko astia hartu dut eta interneteko liburutegi sareko *efilm* plataforma ezagutzeko aukera ere izan dut. Zinez aurki daitezke bertan Netflixek eskaintzen duen kutsu *mainstream-etik* haratagoko film eta dokumental interesgarriak (eta gainera, horietatik nahikotxo, euskaraz).

Beraz, ezin bukatu idatzi hau udal liburutegiari eta sare publikoari eskerrak eman gabe. Estaldura honek benetan lagundu di-eta egun hauek arinago eta probetxugarriago egiten.

Eutsi.

PD: Instagramen eskegi dudanean akuarelatxo malenkoniatsu bat txertatzen dut. Errusiatik *like* nahikotxo jaso ditu honek; kolore beroagoek egin ditudan beste batzuek, ordea, Indiatic jaso dute harrera hobea (bitxia, ezta?).



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Saski-lanaren Titulagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Eduarne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaiola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ENPATIA PIXKAT

Konfinamendua ez da guztiontzat berdina, eta ezin dugu denok berdin bete. Hori dela eta, dekretuan aldaketa bat egin zuten disfunzioak zituztenei konfinamendua arintzeko, baina aldaketa horretan ez dituzte disfunzio guztiak sartu. Nire alabak TDAH dauka, eta kalera irten beharra dauka, ez da kapritxoia, beharra da.

Udaltzaingora deitu nuen, eta egia esan, oso ondo hartu gintuzten. Ulertzen zutela gure egoera eta bagenuela kalera irteteko baimena esan ziguten. Dena dela, badaezpada, Ertzaintzara ere deitu nuen, haiek ere ibiltzen direlako kaleak zaintzen eta ez nuelako arazorik nahi. Oso bestelakoa izan zen Ertzaintzan jaso nuen erantzuna. TDAH ez zegoela dekretuan jasota esan zidaten, autismoa eta asperger soilik hartzen zirela kontuan, eta nire alabak horrelakorik ez bazeukan etxean egon beharko zuela. Osakidetzan ere Ertzaintzaren bertsioa baieztatu zidaten, eta itxura denez, hutsune bat dago dekretu horretan. Dena dela, gure alabak espazio irekietan mugitu behar du, etxean ito egiten da, eta bere egunerokoa izugarri zailtzen zaio. Gurasoentzat oso gogorra da alaba horrela ikustea, gurasoentzat ez dago seme-alaben sufrimendua baino gauza gogorragorik. Konfinamendua arazorik ez duten pertsonentzat gogorra bada, are gogorragoa da guretzat. Enpatia pixkat bat, mesedez.

Ez dezagun zailagoa egin dagoeneko bizimodu zaila dutenen egoera.

B.S.

► AZKARATEKO HONDAKIN BILTEGIA

Orain dela egun batzuk izan genuen auzoan hondakin ez arriskutsuen kudeaketarako instalazioa martxan jartzeko Eusko Jaurlaritzak emandako baimenaren berri. Berria gainontzeko alderdi eta he-

rritarrei bezalaxe prentsa bidez iritsi zitzaigun, aurretik inongo azalpenik jaso gabe. Egoera ikusirik, batetik, konfinamendu egoera, eta bestetik, Zaldibarren gertatu berri dena, ez zaigu iruditu horrelako berri bat jasotzeko momentu, eta ezta era egokia ere.

Auzotar eta herritar bezala, etxe alboan izango dugunaren berri izateko eskubidea dugula uste dugu eta horren berri prentsa bidez jasotzeko mindu egin gaitu. Orain dela ia urtebete hasitako tramitazioak direla kontuan izanda eta instalazioak martxan jartzeko lanak ere orain dela hilabete batzuetatik abian direla kontuan izanik, Azkoitiko Udalak beharrezko azalpenak eman eta zalantza eta kezka argitzeko denbora nahikoa izan duela uste dugu.

Udalak behin eta berriz esan du erakuntzako hondakin ez arriskutsuak jaso, eraldatu eta berrerabiltzeko zentro bat izango dela, baina aldizkari ofizialera jotzen badugu, bertan ikus daitezke behin eta berriz aipatzen diren hondakin arriskutsuak (kutsatutako lurrak, amiantoa duten hondakinak, metal astunak,...) eta baita hauen biltegiraketari buruzko datuak ere. Zer esanik ez aktibitatearen ondorioz sortuko den kutsadura: kutsadura akustikoa (zarata), airearen kutsadura (hautsa eta bertako makineriak eta kamioien joan-etorriek sortutakoa), lurpeko uretan eragingo duen kutsadura, etab.

Gainera, badakigu askotan teoria eta praktika ez datozela bat. Ikusi besterik ez dago Zaldibarren gertatu dena. Era honetako aktibitateak enpresa pribatuaren eskuetan uzteak ondorio larriak izan ditzake. Nola ziurtatuko da araudi guztiak bete eta beharrezko neurriak hartzen ari direla? Nor arduratuko da horretaz?

Guztia ezkutuan eta isilpean egiteak zer pentsa ematen digu, izan ere, azken orduetan egin dituzten deklarazioetan adierazi duten bezalako positiboa balitz, zergatik ez gaituzte aurrez informatu au-

zotar eta herritarrek? Ez gaude ados emandako azalpenekin, interesatzen zaien bertsioa kontatu eta beste hainbat xehetasun isilpean mantentzeak, kezka eta zalantza argitu eta herritarrek lasaitu beharrean, mesfidantza areagotu besterik ez baitu egiten. Hori dela eta, Udalarekin bilera bat egitea nahiko genuke ahal bezain pronto beharrezko azalpenak eman eta zalantza guztiak argitu ahal izateko.

Azkarate garbi auzotarra

► BEREZIA IZATEN DA!

Momentu berezia izaten da. Eguneko bereziena, beharbada. Arratsaldeko 20:00ak. Terrazara irten eta txaloak baino ez dira entzuten. Txaloak han eta hemen. Leiho eta balkoiara irteten garenek elkarri begiratu eta emozioz bustitako energia moduko bat sortzen da gure artean, 'hemendik ere irtengo gara!' esan nahiko bagenu bezala. Eta eskuak ondo berotu ondoren, Herriko Antzokiaren inguruan bizi garenek belarriak eta barruak musikaz goxatzeko aukera ere izaten dugu sarri, Aitor Novari esker. Dultzainarekin gehienetan, eta saxoarekin, bestela. Ederra izaten da. Oso ederra. Aitor isiltzen denean, berari ere txaloak jo eta pozik bueltatzen gara etxeko sukaldara, iluntzeko 20:00etako une berezi hori laster amaituko den esperantzarekin. Eskerrik asko, Aitor. Eta eskerrik asko, batez ere, apirilaren 13koagatik. Ez dugu inoiz ahaztuko.

Karmen eta Gregorio

► BALKOITIK IKUSMIRAN

Eguna sakelako telefonoarekin pasatzen dugu, denbora edo barrua betetzeko itxaropenarekin. Badu alde onik, urruti dagoena gertuago sentitzen baitugu, baina ba al dakigu zer arma daukagun eskuetan? Konfinamenduan, balkoiak bihurtu dira harremantzeko

puntu eta hor iriteten gara txaloak jozera, kantatzera edo ondokoari zer moduz dagoen galdetzera. Horraino ederki. Baina horrekin nahikoa ez eta ikusten duguna inmortalizatzeko desira pizten zaigu, ingurukoei bidaltzeko. Nork auzo biziagoa izan lehan. Bizilagunak grabatzen ditugu kantuan, dantzian...Eta klik batean whatsapp talde guztietara zabaltzen. Ez gara kontziente, baina, bideoan agertu denak agian ez zuela grabatua izaterik nahi eta 10 minutuan bere irudia Euskal Herri guztian zabaldu dela. Batek barre egingo du eta beste batek ez dio garrantzirik emango, baina bada jendea bere irudia beste inork edukitzerik nahi ez duena eta zuk, irakurle, ez duzu inongo eskubiderik inor grabatu eta bere irudia erabiltzeko. Beraz, praktikara salto egi-

nez: 1-Kontuan izan zer grabatzera zozazen. / 2-Zure bizilagunen bat bideo horretan agertu behar bada, galdetu iezaiozu aurrez agertzerik nahi duen./ 3-Ezetz badio, ez grabatu./4-Baietz badio eta ondoren elkarbanatzea nahi baduzu, galdetu iezaiozu berriz ea elkarbanatzerik nahi duen./5-Jasotzen dituzun bideoetako jende batek ez du aukeratu hor agertzerik, beraz, duda hori bazenu, ez elkarbanatu./6-Beti daukazu zeure burua grabatu eta zure irudia elkarbanatzeko aukera.

Zaindu zeure burua eta zaindu ondokoa.

H.B.

► BORROKALARI

Aldatuta dago, zeharo. Egoera honek aldatu egin du; goitik behera. Inoiz baino

sutsuago dago, erreibindikatiboago. Gainera ez da isiltzen. Beti du kexaren bat. Nork esango luke egoera hau eza-gutu aurretik, horrelako hizkera, horrelako tonu oldarkorra erabiliko zuela beraien gustukoGgobenuaren aurka? Baten bat egon daiteke, baina inor gutxi. Izan ere, aukera izan du, ez behin, ez bitan, ez hirutan..., askotan, ahoa zabaltzeko, eta gertuko kolektibo zaurgarri horiek defendatzeko. Baina, bai zera! Bestelako lehenetasunak ditu indarra horrelakoetan alferrik xahutzeko. Orain badakigu (lehen ere bai) nortzuk diren lehendakariaren gustuko lagunak, eta zerk mugiarazten dituen, bai bera, bai bere alderdia. Bestela galdetu, behartuta, egun hauetan lanera joandako langileei, zer balio duen beraien osasunak.

Juan Luis Mugertza



Amparo Cruz Romero

2020ko apirilaren 14an hil zen, 93 urte zituela.

***Ezin ikusi, baina bai senti,
joan zinen arren, gure bihotzetan beti zaude bizirik.***

Rico familia



Jose Luis Urbiola Elosegui

2020ko apirilaren 9an hil zen, 86 urte zituela.

Ixil-ixilik utzi gaituzu
Jose Luis lagun kuttuna,
konfinamendu luze honetan
tristetu zigun eguna,
beti gertuko, beti animoz,
guk alboan zintuguna,
agurrik ez genizun esan ta
jaso gure maitasuna,
eskerrik asko, Jose Luis, zinez
abertzale ta laguna.





ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
 Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
 Erietxe zentruetan zerbitzuak.

Jon Aranoa
 Guillermo Torres



San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
 Asteleheneratik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
 Larunbata: 11:00 - 13:00

Inoizpeindegiz zerbitzuak daukagu.
 Deitu orduko hartzeke.



MEKANOSA

Errosario, 27
 Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA
MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

943 743 704
688 634 044

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARREN

Aita Agirre Kulturegunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO

cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26

943 740 570 / 636 98 61 62



RPS233/13

Tel.: 943 366 377

San Bartolome, 22
 20870 Elgoibar

NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola

GIZA ELIKADURAN ETA
 DIETETIKAN DIPLOMATUA



Toribio Etxebarria, 22
 Eibar
 677 551 850

fisio&mas

Fisioterapia aurreratua eta
 Kirol Berregokitzea



Trenbide kalea, 13
 943 740 191 / 067 903 628
www.fisio-mas.com

100% E7.12

RPS 183/12

Uzuri
 optika audio


Elgoibar
 Tel.: 943 740 359

Deba
 Tel.: 943 192 192




Medikuntzan doktorea
 Psikiatrian espezialista
 Psikoterapia psikoanalitikoak
 Psikosomatika

Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
 Bailen kalea, 9. 1. ezk. (Bilbo)
furizarf@yahoo.com
 615 715 404



RPS 171/12

Elena Herrero Lobo
 Aita Agirre Erparantza, 5
 20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 530 053



RPS 65/07

San Bartolome, 10
 Tel.: 943 743 734



RPS 271/12

Jausoro plaza, 6 beheak
 Elgoibar
 943 531 953
 669 565 745

Osasun gida Osasun gida Osasun gida

Osasun gida Osasun gida Osasun gida

Zuen kezak, galderak edo txalok bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112





Txakur kakaz beterik daude kaleak: "Jakina da txakur-jabe batzuen errespetu falta, baina konfinamendu egun hauetan jarrera hau areagotu egin dela esango nuke. Egunduek bai kale garbitzaileak eta baita udaltzainak ere beste lan batzuk egiten ari diren honekin horrelakoak gehiago ikusten dira kalean. Errespetu apur bat eskatzen dugu"





Errotaberri auzoan autoren batek oinezkoen bat harrapatzeko arriskua dago: "Jendeak ez du ondo aparkatzen Errotaberri auzoan, eta ondorioz, beste auto gidariei oinezkoak ikustea oztopatzen die. Egunduek batean Ikastolara nindoala ia auto batek harrapatu ninduen, argazkian ikusten den autoak gidariari ikuspegia mugatzen ziolako. Poste batzuk zeuden lehen inguru horretan autorik ez aparkatzeko, baina hondatuta daude. Beste irtenbideren bat aurkitu beharko da, ezbeharren bat gertatu aurretik".



Aregitorre 10, 12 eta 14 portalen atzeko Aldea ez dute behar bezala garbitzen: "Aregitorre auzoko etheen atzeko aldea oso zikin egoten da, eta garbitzaileek ez dute behar den bezala garbitzen. Zabor solidoa jasotzen dute, baina han pilatzen den pixa garbitzeko ezinbestekoa da urarekin garbitzea, baina azpian garajeak daudenez, garbitzaileek esan ziguten han ezin dutela garbitzeko makinarik sartu. Jasanezina da hango usaina. Eremu hori berez pribatua da, eta ixteko baimena eskatu izan dugu, baina ez digute ematen, erabilera publikoko gunea delako. Gune hori ganoraz garbitzeko eskatzen dugu bizilagunok". Hirigintza Sailetik esan dute gaia aztertzen ari direla etxebizitza horietako administratzailearekin.



Txalo bero bat Elgoibarko Udaltzaingoiari: "Elgoibarko Udaltzaingoiari gure esker ona adierazi nahi diogu, konfinamendu egun hauetan herritarroei momentu politak ematen saiatzeagatik. Egunduek etxeetan gaudenoi momentu alai bat ematen diguzue zuen autoetatik musika jarritz. *Xalala, Riki Riki* dantzatu zenuten kalean, dultzaina eta danborra ere jo dituzue... lan paregabea egiten ari zarete! Jarraitu horrela!".



Hondakin ez arriskutsuak kudeatzeko gune bat eraikiko dute Azkaraten

A skotariko-eraikuntza hondakinak bilduko, sailkatuko eta tratatuko dituzte Azkarate mendate gaineko tunelaren ondoan egokituko duten eremuan. 36.898 metro koadroko azalera izango du, eta Jauraritzak dagoeneko eman dio lanak egiteko baimena Larke 360 SL enpresari, baimen hori argitaratuta baitago Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Gunea eraikitze lanek datarik ez dute, baina lanak hasita daude dagoeneko. Hondakin-instalazio berriak urtean gehienez 183.390 tona kudeatzeko gaitasuna izango du. Gaur egun betelanelarako eraibiltzen duten lursailean eraikiko dute, Azkoitiko lurretan, tunelaren ahotik gertu. Hiri-lurzoru urbanizaezina da, lurrekin eta harri naturalekin betelanak egin direna. “Lehendik morfologikoki eraldatutako lursaila da; hortaz, erabilera berria sartzek ez du ekarriko habitat naturalik galtzea” jaso dute txostenean. Ildo beretik, eremua ez dagoela inolako naturgune babesturen barnean dio. “Izarraitz-Arno lotura-igarobidearen geldotze-eremuan kokatuta dago, EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen arabera. Proiektua egin nahi den lurzatiak ez daude sartuta lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan”. Aldizkarian, bestalde, gune horren inguruko hainbat xehetasun jaso dituzte, hala nola zer motatako hondakinak bilduko dituzten han.



Besteak beste, hauek izango dira: eraikuntza materialak, basogintzako hondakinak, produktu zeramikoak —adreiluak, teilak eta eraikuntza materiala fabrikatzean sortutako hondakinak—, plastikoa, kautxu sintetikoak eta zuntz artifizialak ekoiztean sortutako hondakinak, metalak eta horien aleazioak nahiz amiantoa duten isolamendu eta eraikuntza materialak, lurzorua eta lurpeko urak oneratzearen ondoriozko hondakinak eta parke eta lorategietako hondakinak (hilerrietakoak barne).

Balkoietan ospatu zuten Aberri Eguna Elgoibarren eta Mendaron



Konfinamenduaren ondorioz Aberri Eguna kalean ospatzerik ez zegoela ikusita, Aberri Eguna balkoietan elkarrekin ospatzera deitu zuten domekarako Euskal Herria Batera egitasmoaren sustatzaileek, eta halaxe egin zuten Euskal Herriko herrietan, eta baita Elgoibarren eta Mendaron ere. Balkoi eta leihoetan ikurrinak jarri, eta minutu bateko isilunea gorde zuten lehenengo, hildakoen eta haien senideen omenez. Ondoren, Mikel Laboaren *Txoriak Txori* kantua abestu zuten, aurrera egiteko indarra emanez elkarri. Instrumentuak hartuta leihora irten ziren batzuk, bizilagunen gozamenerako. Juan Carlos Larreategi txistulariak ere bat egin zuen Aberri Eguneko ospakizunekin, eta bere etxeko balkoitik omendu zituen koronabirusaz hildakoak. Agur Jaunak abestiarekin hasi zuen saioa, eta Aberri Eguna identifikatzen duen biribilketarekin bukatu zuen. Oso hunkigarria izan zela aitortu du. Aberri Eguneko erreposoa eta Larreategiren saioa jasotzen dituen bideoa ikusteko: www.barren.eus

14 salaketa jarri eta 151 lagun identifikarazi ditu Elgoibarko Udaltzaingoak konfinamendua hasi zenetik

Martxoaren 18tik apirilaren 6ra bitartean, Elgoibarko udaltzainek 14 salaketa jarri dituzte eta 151 identifikazio egin dituzte koronabirusaren pandemia geldiarazteko alarma egoeran ezarritako neurriak ez betetzeagatik. Era berean, epealdi horretan zortzi ibilgailu gelditu dituzte, baina ez dute inor atxilotu. Mikel Arantzamendi udaltzainburuaren arabera, elgoibartarren gehiengoa "entzukizunez eta gizalegez" jokutzen ari da: "Elgoibarko herritarren gehiengo handi batek erantzukizun eta gizalege handiz betetzen ditu osasun agintarien jarraibideak, eta hori eskertzekoa eta aitortzekoa da. Baina badira arauak gogorarazi behar zaizkien kasu gutxi batzuk", adierazi du. Arantzamendik gogorarazi du, bestalde, udaltzainak bestelako ekintzak egiten ari direla, sortzen diren beharren arabera. Honez gain, Udaltzaingoak arratsaldero, 20:00etatik aurrera, herriko kaleak karabanan eta musika jarritz zeharkatzen ditu, konfinamendua erantzukizunez betetzen ari diren elgoibartarrei eskerrak emateko eta zoriontzeko. Modu honetan, herritarren txalotara gehituz, osasun langileei balkoietatik egiten zaien omenaldiarekin bat egiten dute. Era berean, Udaltzaingoaren arduradunek orain arte polizia eta larrialdi agintarien artean egon den "lankidetzeta ona" nabarmendu dute, eta herritarrek erakutsitako babes eta maitasun adierazpen zintzoak eskertu dituzte. Elgoibarko Udalak "babes osoa" agertu dio Udaltzaingoari eta osasun krisia hasi zenetik udalerriko herritar guztien osasuna eta segurtasuna bermatzeko betetzen ari den "lan garrantzitsua" goraiatu nahi du.



Koronabirusaren eraginari aurre egiteko baliabideen gida eman du Elgoibarko Udalak

COVID-19aren eragin sozial eta ekonomikoari aurre egiteko baliabideen gida sortu du Elgoibarko Udalak, herritarrei informazioa eskura jarri eta izan ditzaketen zalantzak argitzeko. Besteak beste, Espainiako Gobernuak, Jaurlaritzak zein diputazioak eskaintzen dituzten laguntzak batu dituzte gidan. Autonomo kuotak ordaintzeko luzapenei zein aparteko prestazioei buruzko informazioa, enplegu erregulazioen ingurukoa, ICO maileguari buruzkoak zein itzulketak, inbertsioak eta lanaren mantentzerako egutegiaren atzerapenari buruzkoak jasotzen ditu. Eusko Jaurlaritzako ekonomia sailak sustatu dituen laguntza bereziak eta ematen dituen zerbitzuak ere jaso dituzte, hala nola, enpresa txiki eta ertainek eskatu ditzaketen finantzaketa lerroak, telelana ezartzeko aholkularitza eta dirulaguntzak, alokairuen atzerapena eskatzeko aukera industrialdeetan dauden enpresentzat, e.a... Gipuzkoako Foru Aldundiak hartu dituen zerga arloko neurriak ere jaso dituzte gidan, eta baita Debegesak autonomo eta enpresentzako duen laguntza zerbitzua ere. Informazio gehiago Udalaren webgunean aurkitu daiteke (www.elgoibar.eus).

Lapiko jotzera deitu dute umeei kalera irteten lagatzea eskatzeko

Konfinamenduaren neurri zorrotzenak ari dira pairatzen adingabeak, eta alarma egoera ezarri zenetik debekatuta dute kalera irtetea. Haien egoera arintzea ezinbestekoa dela uste dute askok, eta umeen itxialdia arintzeko deia egin dute. Euskal Herrian, umeen itxialdia arintzeko eskaera oihartzuna hartzen ari da azken egunotan, eta zenbait herritar sare sozialetan salatzen ari dira umeen eskubideak eta beharrak existituko ez balira bezala jokatzeko ari dela Espainiako Gobernuak. Horregatik, lapiko jotzea antolatu dute egunero, 18:00etan, haurrak «Europako edozein herraldetan bezala atera daitezkeen» eskatzeko. Lapiko jotzearekin, «haurtzaroa eta nerabezaroa» kontuan hartzeko eskatu nahi dute.





Udalak 800.000 euro ematea proposatu du EH Bilduk merkatariei, ostalariei, autonomoei eta enpresei laguntzeko



Koronabirusaren krisiak eraginda egoera zailean dauden merkatariei, ostalariei, autonomoei eta enpresei laguntzeko Elgoibarko Udalak 800.000 euroko diru partida gordetzea proposatu du Elgoibarko EH Bilduk. Udal administrazioaren egoera ekonomikoa ona dela nabarmendu du EH Bilduko zinegotzi Jon Peli Uriguenek eta gaineratu du inguruko beste udal batzuk ari direla antzeko neurriak hartzen. Azpeitiko Udala jarri du adibide moduan, koronabirusaren krisia abiatu zenetik milioi bat euro bideratu dituelako herritarrei laguntzeko ekimenetara. Uriguenen ustez, Elgoibarko Udalak baditu baliabideak hori egiteko eta esan du orain dela behar dutenei laguntzeko unea. Elgoibarko Udalak ezarritako laguntzak beste administrazio batzuk ezar ditzaketenekin osagarriak izan daitezkeela esan du Uriguenek, eta zentzu horretan uste du, egon daitezkeen diru-laguntzak herritarrei jakinarazteko Debegeesak jarrera aktiboa hartu beharra daukala.

Morkaiko Eguna bertan behera laga dute

Covid19-aren bilakaerak behartuta, maiatzean egitekoak ziren Morkaiko Eguna bertan behera laga behar izan dutela adierazi dute antolatzaileek. Elgoibarko mendi itzulua, itzulitxoa eta Finalista Eguna biltzen ditu Morkaiko Egunak. Dena dela, Finalista Eguna, irailean egiteko asmoa dutela aurreratu dute. Data zehatzik ez daukate oraindik, baina egutegian finkatu bezain laster jakinaraziko dutela adierazi dute. Mendi zerrendetan, baina, 2019ko maiatzaren 1etik 2020ko apirilaren 30era arte egindako mendiak bakarrik hartuko dituzte kontuan.



Trinitateetako danborradaren kartel lehiaketa martxan da

Trinitate Jaiak ospatuko diren edo ez oraindik ez dakiten arren, Atabal elkarte eta Kultura Saila aurrelanean ari dira, eta besteak beste, nagusien danborrada iragartzeko kartel lehiaketa antolatu dute. 18 urtetik gorako edonork hartu dezake parte, eta teknika librea erabili ahal izango da. Hala ere, ezinbestean agertu beharko da ondorengo esaldia: "Elgoibarko 2020ko danborrada. Ekainaren 6an, 23:00etan". Lanak, Kultura Sailean entregatu behar dira maiatzaren 8rako (Aita Agirre eraikina). Sari bakarra emango dute: kartel irabazlearen egileak 300 euro jasoko ditu.

Etxez etxeko zerbitzua jarri dute martxan hainbat baserritarrek

Debabarrena eskualdeko zortzi ekoizle bat egin dute Debemenek eta Baserrikoa Debabarrenak sustatutako ekimenarekin, eta Elgoibarkoak dira horietako hainbat baserritar: Basueta baserriak barazkiak eta fruitu lehorrak banatzen ditu, besteak beste. Nerea Garitagoitia da arduraduna (943748706 / 607 348 828 edo maquindefor@gmail.com). Txillarre Eko-Dendaren bitartez ematen zuen Txillarre baserriak etxez etxeko zerbitzua alarma egoera aurretik ere, baina orain indartu egin dute zerbitzu hori. Lehen, astelehen eta martitzenetan banatzen zuten Elgoibarren, eta orain aste osora, asteleheneetik barikura arte zabaldu dute eskaintza. Eskari minimoa 15 eurokoa da, eta Elgoibarren debalde egiten dute banaketa. Barazkiez gain, dendako beste edozein produktu ere eskatu daiteke, emailaz p.ekologikoak@gmail.com edo telefonoz 635 008 496 zenbakira deituta. Azkenik, Julian Villenaren ezitia eskuratzeko aukera dago: (675 009 671 / ndaizpuru@hotmail.com).

San Lazaro egoitzatik lasaitasun mezua bidali diete egoiliarren senideei

Gipuzkoako zenbait zahar etxetan min handia egin du koronabirusak, baina San Lazaro egoitzan momentuz ondo daudela esan dute arduradunek. Udalak ere jakinarazi du Meka ikastetxeak 3D inprimigalaiarekin eginiko maskarak egoitzara bideratu dituela, eta horri eta beste babes beurri batzuei esker, koronabirus kasurik ez dutela izan egoitzan. Bisitak debekatuta daude alarma egoera ezarri zutenetik, eta egoiliarrek telefonoz edo bideodeiak eginez harremantzen dira etxeokoen, baina aste honetan, bideo hunkigarri bat prestatu dute denak ondo daudela erakusteko. www.barren.eus atarian duzue bideoa ikusteko aukera.



Koronabirusak eragindako kalte ekonomikoak arintzeko neurri fiskalak onartu ditu Mendaroko Udalak

Koronabirusak eragindako kalte ekonomikoak arintzeko hainbat zerga eta tasaren kobrantza atzeratu edo eten eta herriko ekonomia berrakitatzeko hainbat neurri hartu ditu Mendaroko Udalak. Honako neurri hauek hartu ditu, besteak beste: IVTM Trakzio Mekanikoko lbigailuen Udal Zergaren kobrantza atzeratu du (martxoaren 31n zuten kobratzekoa, baina maiatzaren 31ra arte ez dute kobratuko), hondakinak biltzeko tasa, apirilaren 30ean kobratzekoa zutena, ekainaren 30era atzeratu dute. Era berean, koronabirusaren ondorioz itxita dauden establezimendu eta jarduera ekonomiko eta profesionalei dagokienez, jasandako galerak arintzen lagunduko duen konpentsazio ekonomikoren bat aztertzen ari direla jakinarazi dute, eta gauza bera egiten ari dira lurzoru publikoan terraza dutenekin. Horrez gain, erabilera publikoari atxikitako ondasunen erabilera-tasak (eraijin publikoetako lokalak) osasun-alarmak iraun bitartean itxita egongo den denboraren balioa itzuli edo konpentsatuko du Udalak, eta Udalak berak emandako tabernaren kanonaren kobrantza eten egingo dute. Azkenik, udal lokalen erabilera, pilotalekuko eta padeleko erreserben ordainketaren zati proportzionala itzuliko dute.



Bestalde, Mendaroko Udalak tramiteak erraztu ditu hipoteka-zorren moratoria eskatzeko. Hala, taldekako errolda egiaztagiriak egiten hasiko da Udala, e-mail bidez, Mendaroko familiek, berariaz, hipoteka-zorren moratoriak eskatu ahal ditzaten. Beraz, herritarrek egiaztagiri hori eskatu ahal ziango dute erregistroa@mendaro.eus helbidera mezu bat bidalita. Horrekin batera, etxebizitzan bizi diren 16 urtez gorako pertsona guztiek behar bezala betetutako eta sinatutako eskaera aurkeztu beharko dute, bai eta bertan eskatzen zaien dokumentazioa ere. Erantzuna bide beretik jasoko dute eskatzaileek, posta elektronikoz alegia, eta hori tramitatzea lehentasunezkoa izango da. Eskaera horria Mendaroko Udalaren webgunean deskarga daiteke: www.mendaro.eus.

Odol ateratzeak gaur, kiroldegan

Odol emaileen elkartetik jakinarazi dutenez, babes neurriak bermatu ahal izateko lokal handiagoga eskatu diote Elgobarko Udalari, eta honek Olaizaga kiroldegia laga die. Gaurko odol ateratzeak, beraz, Olaizaga kiroldegan egingo dituzte. Interesatuek, aurrez hitzordua hartu beharko dute 623 328 408 telefonora deituta edo Whatsapp bidez mezua bidalita. Arduradunek esan dutenez, ambulatorioan duten lokalaren tamainak asko mugatu zuen azken odol ateratzea, eta 30 lagunek soilik eman ahal izan zuten odola.

'Are you ready' katalogoa nerabeentzat

Nerabeei zuzendutako eskaintza bilduma kaleratu du Mendaroko Udalak, Agintzari Gizarte Ekimeneko Kooperatibarekin elkarlanean: *Are you ready: Gazte Katalogoa*. Gidan eskura daude etxetik ikasteko baliabide ugari, irakurmena lantzeko esteka interesgarriak, sormena etxetik lantzeko tailer eta ekintzak, gazte-problematikak lantzeko kanal ezberdinak, edota kultur, zinema eta serie proposamenak. Gida www.mendaro.eus webgunean deskargatu daiteke.



▶ IBAI PORTU

MENDI INGENIARIA ETA NATURZALEA

Ana Galarraga zientzialariak idatzitako *Gizakia, suntsipen handiko izakia* izeneko artikulua zekarren Elhuyarrek aurreko batean. Planetaren txoko guztiak kolonizatu ditugula zioen Galarragak, baina hala ere, bizidun guztietatik % 0,01 baino ez garela gizakiak. Hori bai, beste espezieak suntsitzeko ahalmenari erreparatuz gero, izurria garela zioen, ugaztun basatien % 83 eta landareen % 50 galdu direlako gure erruz. Koronabirusak etxean konfinatuta egotera behartu gaitu, gizakiaren jarduna eten du, eta horrek eragina izan du naturan. Ibai Portu (Mendaro, 1978) mendi ingeniaria da ikasketaz eta Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuan lan egiten du. Horrez gain, naturzalea ere bada, eta berarekin berba egin dugu koronabirusak naturan izan duen eraginari buruz.

- AINHOA ANDONEGI -



“Gizakia koronabirusaz kutsatzen duen animalia nagusia gizakia bera da”

♦ **Koronabirusa animalietan sortu dela diote, saguzarretan hain zuzen ere. Hala ere, oraindik ez dakite nola pasatu den birusa gizakietara. Honen inguruan argibiderik ematerik baduzu?**

Begirada eta aztarna gehienek saguzarretara gidatzen dutela dirudi, baina ezin izan da frogatu egungo koronabirusaren iturria, SARS-CoV-2-aren iturria, saguzarrak direnik. Oraingoaren oso antzekoak ziren beste bi birusen (SARS-CoV-1, Txina, 2003. urtea, 800 hildako eta MERS, Arabia, 2012. urtea, 850 hildako) jatorria saguzarretan ipini da, baina bi kasuetan beste tarteko bitartekari batzuk egonda: lehen kasuan, Txinako animalia merkatuetako zibetak (baina ez zibeta basatiak, horiengan ez baitzen CoV-1 ik aurkitu) eta bigarrenengan, dromedarioak. Gizakia SARS-CoV-2 birusaz kutsatu izanaren errua Txinako animalia merkatuetan saldutako espezieei egotzi zaie, pangolinari kasu, 2003ko Txinako izurri hartan egin bezala. Egia da adituen ikerketek antzeko koronabirusak munduko beste toki batzuetako saguzarretan aurkitu dituztela. Baina badirudi historia eboluti-

boak sortutako adaptazioa medio, saguzarrak ez direla gaixotzen. Munduan zehar dauden animalia basatien merkatuetako salerosketetan zein osasun kontrol egiten diren aztertu beharko litzateke. Edo nola ere, orain kezka nagusia ez dago saguzarrean edo pangolinean, gizakiari koronabirusa kutsatzen dion animalia nagusia gizakia bera baita.

♦ **Koronabirusak konfinamendua ekarri du, eta ondorioz, gizartea ia geldirik dago. Naturak, baina, bere erritmoan darrai. Zein eragin izan du konfinamenduak naturan?**

Gizakiak gara, nahita edo nahi gabe, zuzenean edo zeharka, naturan gertatzen diren kalteen erantzule nagusiak. Munduko gizaki ia guztiok geure etxeetan konfinatuta bagaude, kalte horiek asko murrizten dira.

♦ **Orain arte ohikoak ez diren animalia batzuk agertu dira egunotan kalean. Esan daiteke gizakia etxean egoteak ahalbidetu duela animalia horiek kalean lasai ikustea?**

Neurri handi batean bai, animaliak janari bila lasai ibili daitezkeelako hara

eta hona, gizakiengatik gehiegi kezkatu barik. Besteak beste, orkatzak ikusi ditugu Gasteizko hirigunean, basurdeak ere erruz ikusi ditugu herrietako ortuetan, bai eta azeriak nahiz erbiak ere errepedeetan. Estatu mailan, hartzak Asturiasko herriak bisitatzen ari dira eta basahuntzak iberiar penintsulako erdialdeko herrietara jaisten ere ikusi dira.

♦ **Hainbat animalia garai honetan egoten dira kumeak egiten, eta adituek esan dute gizakiaren presentziarik gabe estres gutxiagorekin dihardutela zeregin horretan.**

Bai, hala da. Euskal Herrian mehatxatutako bi espezie har ditzakegu adibide gisa: bisoi europarra eta saizuria. Lehenengoaren heriotza-arrazo nagusienetarikoa bat motordun ibilgailuek eragiten dituzten harrapaketak dira. Motordun ibilgailuen mugimenduak %90 murriztuko balira, bisoiaren heriotza arrazo hori ere proportzio berean jaitsiko litzateke. Saizuriaren kasuan, bere kabitik gertu kokatutako hainbat giza-ekintzek bereziki traba egiten dioten espeziea izaki, kabia jarri, arraultza errun eta kumea elikatzeko den-

bora tartean hainbat buruhauste desagertu zaizkio. Oro har, aurtengo kumaldien arrakasta-tasak kontuan hartzeko modukoak izango dira, dudarik gabe.

♦ **Martxoko bigarren hamabostaldian %46an hobetu da Hego Euskal Herriko hiriburuetakoa airearen kalitatea. Konfinamenduari esker aire garbiagoa arnasten ari gara.**

Hirietako airearen kalitatean gehien eragiten duen faktorea motordunen trafikoa da. Hainbestekoa izan da motordun ibilgailuen trafiko kopuruaren jaitsiera eta ondorioz horrek dakarren atmosferarako emisioen jaitsiera, ezen kalera irteteko zortea duenak aire garbiagoa arnastu baitezake, nahiz eta guzti hau krisialdi sanitarioak eta alarma egoerak ekarritako aparteko baldintzengatik izan. *Ecologistas en Acción*-en txosten batek adierazten duenez, 2020ko martxoko bigarren hamabostaldian, atmosferako NO₂ kontzentrazioak Espainiako hiri guztietan egin

du behera, gehien Mediterraneokoetan, esaterako, Bartzelona, Valentzia edo Alacanten %65-%80 inguru.

♦ **Txinan ere askoz aire garbiagoa da goela esan dute, Italian ere Veneziako kanaletako ura askoz garbiago ikusi dugu... Baiezatu dezakegu gizakiaren jarrerak eta jarduerak eragin zuzena daukala ingurumenean eta kliman?**

Dudarik gabe, hala da. Europako Ingurumenaren Agentziaren esanetan, NO₂ balio altuek urtero 7.000 hildako goiztiar eragiten dituzte Espainiako estatuan. Bestalde, munduko biztanle bakoitzaren errekurtsioen kontsumoa euskal herritar bakoitzaren berdina izango balitz, 2,6 lur planeta beharko liriteke denon kontsumo beharrak asetzeko. Gu ondo bizi gara, munduan beste jende asko gutxiagorekin konformatu behar delako. Ingurumena eta klima naturaren orekaren parte dira eta, gizakiaren jarrera arduragabeak

oreka hori apurtu dezake, bere eta bere ondorengoen txarrerako.

♦ **Estatu Batuei eta beste hainbat herrialderi leporatzen zaie ez dutela zientzian behar adina inbertitzen. Orain denek zientziari eskatzen diote koronabirusaren kontrako txertoa ahalik eta azkarren sortzeko. Pandemia honi esker uste duzu herrialdeek zientzian gehiago inbertituko dutela?**

Hego Korea, Japon, Suedia eta Alemania bezalako herrialdeak erreferentzia bat dira zientziaren aldeko apustua egin dutelako. Baita Txina ere, azken hamar urteetan zientzian egindako inbertsioa asko handitu baitu. Estatu Batuen zenbakiak, esanak esan, ez dira txarrak arlo honetan. Oraingo pandemia honekin mundu guztia benetan beldurtu da. Inor inoren gainetik ez gaudela erakusten digu. Nire ustetan, zientzian eta garapen teknologikoan ez bada inbertitzen, epe luzera gizakiok planeta honetatik desagertu egingo gara.



ANDER IZAGIRRE, biologoa

Modu batera edo bestera, konfinamenduak denoi eragin digu, kasurik gehienetan txarrera, seguruenik. Zer gertatu da, baina, naturan? Azken boladan irudi kurioso asko ikusi ditugu: azeriak, or-

katzak, basurdeak... Askok izan dira ohi baino lasaiago herri guneetan ikusi ditugun animaliak. Irudi bitxiak izan arren, misteriorik gabe ulertzekoak dira: Animalien arrisku edo beldur eremua zena libre utzi dugu, eta naturak berea dena berreskuratzeko nahia besterik ez du erakutsi.

Agian basa bizitzaren gerturatze horrek deitu digu atentzioa. Bada beste fenomeno bat, ordea, oharkabean pasatu arren, garrantzi gehiago izan lezakeena: Udaberrian etorri zaigu konfinamendua, animalia espezie gehienak ugaltzen diren sasoiaren. Mendiak ia hutsik daude, gizakiaren presentzia nabarmen jaitsita, eta nahi gabe sortzen ditugun trabak gutxituta, animalia batzuen ugaltze-tasak handitu daitezkeela diote adituek. Hala bada, espezie mehatxatu batzuen kasuan, bultzada garrantzitsua izan daiteke. Beraz, animalia batzuek, eskertuko dute agian egoera hau.

Ingurumenaren aldetik, kutsadurak behera egin duela entzun dugu. Europako agentzia espazialak zabaldu dituen irudi batzuetan esaterako, nabarmen jaitsi dira kutsatzaileen kontzentrazioak,

ibilgailuak zein industria jarduerak murriztearen ondorioz. Hala ere, martxan jartzen garen momentuan lehengo egoerara bueltatuko gara, eta aldaketa klimatikoak bere horretan jarraitzen du, noski.

Amaitzeko, birusaren jatorriaren inguruan entzun diren astakeriak ezin ahaztu ditzakegu. Koronabirusa pangolin edo saguzarretatik etorri dela entzutea, animalia hauekiko mespretxua handitzeko aitzakia borobila izan da. Hasteko, ziurtatu gabe dago benetako jatorria, eta bestela ere, animalia-gizaki transmisioa merkatu batean eman bada, argi dago zein den benetako arduraduna. Animalia batzuen komertzio baldintzak penagarriak dira zentzu guztietan, eta horrek, gaixotasun zoonotikoak agertzeko aukerak biderkatzen ditu. Jakitun izan behar gara, naturarekin zein naturan egiten dugun guztiak bere ondorioak dituela. Era berean, azterketa zientifikoek ziurtatuta, badakigu biodibertsitatearen trataerak ere eragin handia duela osasun publikoan. Alabaina, azterketa horiek egiten mendian ibili zitezkeen biologoak etxean egonda, beste arlo askotan lanean eta kutsatzeko arrisku gehiagorekin dauden bitartean, gauza gutxi aztertu daiteke.

Ez dakigu ziur, natura irabazten irten den edo ez; gizakia aldiz, argi dago ezetz. Okerrena agian, egoera honek utzi dizkigun lezioetatik ez ikastea izango da.



Gurutze Gorriaren Elgoibarko bulegoko arduraduna da Julian Rodriguez (Elgoibar, 1968). Egunotan lanez gainezka dabil, Gurutze Gorriaren laguntza premian direnen kopuruak gora egin duelako.

- AINARA ARGOITIA -



“Jendea triste dago etxeetan eta etxeetara joaten garenean hori ere ematen dugu: babes”



▶ JULIAN RODRIGUEZ

GURUTZE GORRIAREN ELGOIBARKO ARDURADUNA

♦ Zein ari da izaten zuen egoera honetan?

Funtsean, betiko lanetan ari gara, baina egia da gure lan-karga handitu egin dela konfinamenduan. Kolektibo edo familia kalteberentzat ari gara gu egu-

nero, bai lehen eta bai orain, baina alarma egoera honetan orain arte genituen familien egoerak okerrera egin du, eta lehenaz gain, familia gehiagori lagundu behar diegu orain. Jatekoa eta botikak eramaten dizkiegu etxera beharrik handieneko familiei, baina konfinamenduan beste lan batzuk ere ari gara egiten: etxetik irten ezin dutenei zaborra atera edo txakurrak pasiatzera atera... Berez, pobrezia energetikoaren proiektua ere kudeatzen dugu, Gurutze Gorriak arreta eskaintzen dien familien ia erdiek oinarrizko gastuen artean zein ordaindu aukeratu beharra izaten dutelako: hau da, elikadura egokia mantentzea edo etxea berotzea, adibidez. Jaur-laritzak finantzatzen du proiektua, eta Gurutze Gorriak kudeatzen du diru-partida hori hiru lurraldeetan, baina gai horretan moratoria ezarri zuten, eta egia esan, sekulako arindua hartu genuen, ez dakigulako bestela zer izango litzatekeen etxe askotan.

Nolanahi ere, ekonomia geldirik dago eta kaltetuenak, bistan da, lehendik ere egoera ekonomiko okerrerean zeudenak dira. Diru-sarrerarik gabe gelditu dira, etxean daude, eta lehen jangle-tan-eta jaten zuten seme-alabei ere orain etxean eman behar diete jaten. Egia esan alor horretan gainezka eginda gaude. Eli-

kagaien Bankua gelditu dago, eta beste bide batzuk bilatu behar izan ditugu janaria biltzeko. Orain, Elgoibarko Merkadonarekin ari gara gu lanean. Orain arte, iraugintzeaz zituen produktu freskoak Elikagaien Bankuari ematen zizkion Merkadonak Gipuzkoan banatzeko, baina hori gelditu dagoenez, orain geuk jasotzen ditugu, Gurutze Gorriak. Gure eguneroko borroka hori da orain. Aliantzak lortu, eta formato horretan edo dohaintza formatoan iristen dena kudeatzea. Egoera normalean, elikagaiak bi bidetatik iristen zaizkigu guri: Elikagaien Bankutik eta Europako Batasunetik. Europatik datorrena esnea, pasta edo enbasatutako produktuak izaten dira gehienbat, oinarri-oinarrizkoak. Alarma egoeratik, Elikagaien Bankua gelditu zenean, baina, elikagai freskorik gabe gelditu ginen eta horregatik jardun gara aliantzak egin nahian denda handiekin. Kontua da jateko hori iraugintzeaz egoten dela dendek ematen digutenerako, eta beraz urgentzia handiarekin egin behar izaten dugula lan. Gurutze Gorriak Elgoibarrerako izendatzen duena Elgoibarren eta Soraluzen banatzen dugu gero guk, hori delako gure lan-eremua.

♦ Zein perfiletako jendea da zuen laguntza behar duena?

Ez da zaila asmatzen. Gehienak migranteak dira, logikoki, baina hemen bertan jaiotako jende dezente ere badaukagu, gero eta gehiago. DSBE diru-sarrerak bermatzeko errenta (RGI) edo beste laguntzaren bat jasotzen dutenak dira, baina horrekin nekez bizi daitezkeenak. ‘Baina diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen baldin badute, zer beste laguntza behar dute?’, pentsatuko dute askok ziurrenik, baina kontuz! DBSE laguntza badakigu zein

urria den etxean bi-hiru seme-alaba dauzkanarentzat eta hilean 500 euroko alokairua ordaindu behar duenarentzat. Elgoibarko Udaleko Ongizate Sailarekin elkarlan zuzenean ari gara gu, orain eta beti, eta gauza horiek ondo zainduta daude. Ez dezala inork pentsa hemen edozelan ari garenik.

♦ **Koronabirusak ezarritako alarma egoera honetan, boluntario-sareak ere sortu dira bazterretan. Elgoibarko Gurutze Gorrian zenbat zaudete orain momentuan? Nola antolatzen zarete?**

Hau dena hasi zenean boluntario-sareak sortu ziren herri askotan, eta elkartasun hori antolatzearen alde egin zuen Jaurlaritzak, ikusita ondo beharrez egindako lana ere arriskutsua izan zitekeela egoera honetan. Hala, martxoaren 17an jarri zuen martxan Guztion Artean sarea Eusko Jaurlaritzak, koronabirusak eragindako egoeraren aurrean bakarrik eta babesik gabe zeudenei laguntza eskaintzeko. Etxetik irten ezin duten pertsonen behar-beharrezkoak dituzten gauzetan laguntzeko sortu zuten sare hori, zehazki 70 urtez gorako pertsonen, mendekoei edo ahultasuneko beste egoera batzuetan daudenei laguntzeko, eta hor Udaleko Gizarte Zerbitzuek, Caritasek, boluntariotza-agentziek eta guk dihardugu lanean, besteak beste, era koordinatu batean eta Osasun Sailaren eta Lehendakariaren jarraibideei kasu eginda. Guk beti esan izan dugu oso beharrezkoa dela era koordinatuan lan egitea, baina egoera honetan are garrantzitsuagoa irizten diogu horri, guztion osasuna zaintzeko mugimenduak ere mugatu behar direlako.

Boluntario aurkeztu direnak asko dira, [Elgoibarren 40tik gora]. Guk geuk egunero jasotzen ditugu bi-hiru lagun berriren deiak. Aurkezten diren guztiei elkarrizketa egiten diegu eta bi-hiru orduko ikastaro bat ematen diegu gero, egoera honetan jarraitu beharreko protokoloa zein den zehazteko, etxez etxe jana edo botikak eramaten ibili behar denak jakin behar duelako nola egin behar duen, bere burua zaintzeko eta beste inor arriskuan ez jartzeko. Elgoibarren, 18 boluntario berri dauzkagu Gurutze Gorrian lanerako prest [ohiko 14 boluntarioez gain], baina momentuan eskaria ez da denei lana ematekoa bestekoa. Baina baldintzak betetzen dituzten guztiak sartzen ditugu gure sarean eta gero, behararren arabera, bati edo besteari deitzen diogu. Whatsapp talde bat sortu dugu denekin eta saiatzeko gara beharra dagoen etxetik gertuen bizi denari abisatzen beti, mugimenduak gutxitzeko. Hori bai, kasu zailenetan, positiibo eman dutenei lagundu behar denean-eta, gu joaten gara, beti-betiko boluntarioak.

♦ **Beharra dutenen kopuruak gora egin du. Eskari zabalduea zein da?**

Eskaria askotarikoa da. Jendea konturatu da hau gai serioa dela, eta horregatik, gero eta jende adindun gehiagok deitzen digu



adibidez. Ez dira normalean Gurutze Gorriaren laguntza behar izaten duten familia klasekoak, baina askok patologia dituzte edota adin handia dute eta ez dute inguruan inor laguntzeko. Horregatik deitzen digute, beldurtuta. Hori igarri dugu azke-

neko asteetan. Beldurtuta dago jendea, batez ere adinekoak. Hala ere, konfinamenduan antsietate-krisia izan duten umeak ere artatu behar izan ditugu. Adinekoen ari garela esan nahi nuke patologia-rik izan ezta ere, beldurra izatea bera badela nahikoa arrazoi laguntza eskatzeko, eta gure beharrik izanez gero, deitzeko lasai. Adinekoen eraketak eramaten dizkiegu etxera, bai eta botikak ere, eta zaborra ere ateratzen diegu. Esan behar da Botikarien Elkartearekin hitzarmen bat sinatu dugula guk gure boluntarioek gaixoen txartelik erakutsi beharrik gabe jaso ditzaten botikak farmazian. Jendea triste dago etxeetan, eta etxera joaten gatazkienean hori ere ematen dugu ahal dugun neurrian: babesa, arreta, edo nahiago baduzu: karino pixkat eta lasaitasun mezua. Telefonoz deitzen ditugunekin ere aritzen gara lan horretan eta esan behar da herritarrek eskertzen dutela. Horren behar handia dago, egia esan.



♦ **Zein da boluntarioen perfila?**

Edozeinek ezin du izan. Boluntario izateko, beharrezkoa da patologia kronikorik ez izatea eta jarduera hasi aurreko 14 egunetan sintomarik agertu ez izana, ezta bizileku batera joan aurretik ere. Gainera, beharrezkoa da 18-64 urte artean izatea eta datorren hilabeteetan, astean bi edo hiru egunetan, gutxienez bi ordutan laguntzeko prest egotea. Baldintza horiek betetzen dituzten artean, denetarik daukagu. Eta pikaro batzuk ere agertu zaizkigu, jakina. Izan da bakarren bat etxetik irten ahal izateko bakarrik boluntario aurkeztu dena eta ikastaroa egin behar duela esan diogunean atzera egin duena. Halakorik ez dugu nahi, bistan da. Dena den, azpimarratu nahiko nuke gauza bat. Gure boluntarioak ondo identifikatuta joaten dira beti etxeetara, eta joan aurretik, guk deitu egiten dugu zein eta zein ordutan joango den azalduz. Mezu hori zabaldu nahi dut: Inork ez sinisteko atera doan lehenengoari eta zalantza izanez gero, deitzeko beti iturri ofizialetara.

♦ **Datutara eramanda, zein da Gurutze Gorriaren lana?**

112 familiak jasotzen dituzte gure bitartez oinarrizko elikagaiak. Guztira 327 lagunek, etahorietatik 42 bat 3 urtez azpikoak dira. Mercadonak ematen dizkigun elikagai freskoak, berriz, 46 familiaren artean banatzen ditugu. Guztira, 152 lagun dira horiek; hamabi 3 urtez azpikoak. Jatekoaz gain, higienarako kitak ere banatzen ditugu.

Boluntario izan nahi dutenentzako nahiz zerbitzua jasotzeko beharra dutenentzat telefono zenbakiak: 945 222 222 / 943 741 008



▶ IBAN URIZAR

MUSIKARIA

Koronabirusak eragindako krisi honetan kaltetuak asko dira, baina gaur kulturgileengan jarri dugu begia. Iban Urizar (Elgoibar, 1975) da gure musikarietako bat. Cafe Teatro, Bizarra eta Andrakan taldeetan aritutakoa da besteak beste, baina aspaldian Amorante bakarkako proiektuarekin dabil. Martxorako ere bazituen hainbat kontzertu lotuta, koronabirusagatik bertan behera laga behar izan zituenak.

- AINARA ARGOITIA -



“Kulturak enplegu asko sortzen ditu eta iruditzen zait ez zaiela behar besteko arreta jarri”

♦ Zer moduz zaude? Musikaria izanda, nola bizi duzu egoera hau?

Sortzailea naiz, baina irakaslea ere bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, eta horrek baditu abantailak eta desabantailak. Abantaila da irakasle izanda soldata bat bermatuta dudala, baina desabantaila da lana biderkatu zaidala. Ikastetxeak itxita daude, aurrez aurreko eskolak etenda, baina lanean jarraitzen dugu, etxetik, telelanean. Eta zuk ondo jakingo duzun bezala, telelana ez da erraza. Lanaldi erdiz ari naiz ni berez irakasle lanetan eskolan, baina 140 bat ikasle izango ditut guztira, eta noski, haiei lanak bidali behar zaizkie, eta ondoren, zuzendu. Beraz, eskolan sartzen nituen orduak baino askoz gehiago sartzen ari naiz orain, baldintza okerragoetan. Sortzaile lanari dagokionez, ahalegintzen naiz egunean tartetxo bat hartzen entsegatzeko, edo nahiago baduzu, sortzeko. Lehen, lokalean jarduten nintzen, baina orain, logela atondu dut horretarako eta ahalegintzen naiz egunean gutxienez orduerdi bat hartzen tronpeta jotzeko-eta. Eta hori dena etxean egiten dut, eta etxean badut familia ere. Bi ume ditut eta kezka bat darabil buruan uneoro: ez ote nintzatekeen beste zer-bait egiten ari beharko, umeekin gauzak sortzen edo... Irudipena daukat denbora lapurtzen ari natzaiera. Etxean gauden denboran lanean egon behar dugun obsesio horrek harrapatu gaitu, eta ez dugu tarterik hartzen egoteko, ezer ez egiteko. Kontzientziak ez digu uzten, eta zaila da hori kudeatzea. Denbora ateratzen dugu

denerako, edozein egoerataro egokitzeko gaitasuna dugulako. Beste aukerarik ere ez dugu, baina ez da erraza, ez.

♦ Azken egunotan irakurri eta entzun ditugu kulturgileen iritzia eta denak bat datoz esatean kulturarena dela ekosistemarik kaltetuena eta kulturgileena kolektiborik zaurgarrietako bat. Zer diozu?

Kulturaren kate prekario horretan gu, sortzaileok, katebegi bat gara. Kulturgintzaz ari garenean guban jartzen da sarri begia, baina esango nuke -eta ez nuke sortzailerik mindu nahi- gure aldean okerrago egon daitezkeenak ere badaudela kulturaren mundu honetan. Hor daude mahai-technikariak, programatzaileak, kultur egitarau propioa eskaintzen zuten tabernariak eta orain derrigorrean taberna itxi behar izan dutenak... Kulturak enplegu asko sortzen ditu, eta iruditzen zait ez zaiela behar besteko arreta jartzen horietako batzuei, ez dela aintzat hartzen horiek kulturari egiten dioten ekarpena. Esan nahi dudana da koronabirusak zein kalte egin digun aztertzen hasi aurretik beste galdera bat egin beharko genukeela: zenbat jende bizi zen orain arte kultura sortzetik bakarrik? Galdera horri erantzunda kalkulatu genezake hobeto zer nolako eragina izan duen, baina nire esperientziatik esango dizut jende gutxi bizi dela bakarrik kulturatik. Nire kasuan esan dizut soldataren parte bat bermatuta dudala irakasle ere banai-zelako, baina baditut lagunak, gutxi batzuk, musika egiteki bakarrik bizi direnak eta atera kontuak zein egoeratan egon

daitezkeen orain! Diru-iturri bakarra kultura duten langile autonomo horiei min handia egiten ari zaie, beste autonomo askori bezala. Hala ere, nik neuk ere baneuzkan mar txoan sei-zazpi bat kontzertu programatuta eta diru-iturri hori galdu dut, eta noski, diru hori ere kontuan hartuta geneukan etxeko ekonomiarako, baina nire aldean egoera okerragoan daudenak badaude.

♦ **Itxialdi honetan sormen-maila handia erakutsi du jende batek eta arterako zale-tasuna hartu dute askok. Beharbada bizi dugun bizitza zoro honek ez zigun horretarako aukera handirik lagatzen lehen?**

Begira, kultura da gizarte honen arnasguneetako bat eta kolpetik arnasgune hori itxi egin digute. Eta ondorioz, bi gauza gertatu dira: Batetik, irudimena izugarri handitu da eta etxean itxita eta aspertuta dagoen jende askok sortzeari eman dio, batez ere umore puntutik. Bestetik, honek lan egiteko moduan aldaketa ekarri du. Musika etxean sor genezake, kontzertuak eman ditzakegu streaming bidez, baina horretarako guztirako behar tekniko batzuk ditugu, askotan berma ezin ditzakegunak. Baina, bai, bai. Iruditzen zait obsesionatuta gaudela denbora beti "kalitatezkoa" izate horrekin, beti zerbait egiten egon behar horrekin, eta horrek frustrazio handiak sortzen dizkigula. Denok harrapatu gaitu obsesio horrek, ni neu ere bai. Baina garbi gelditu da aspertzeak ere badakarrela onik. Denbora "galitzea", aspertzea, oso garrantzitsua da sortzeko.

♦ **Haizea Barcenillak gaur *Berria* egunkarian dio pantomima hau amaitu behar dela. Barcenillak dio esparru guztiak erreskatatzeko planak egiten dabiltzala agintariak, kultura-rena salbu, eta aldiz, normaltasuna ematea eskatzen ari zaizkizuela sortzaileoi, zuen kantu, irakurketa eta irudiekien itxialdia arintzeko.**

Hori da. Ez dut Barcenillaren testu hori irakurtzerik izan oraindik, baina guztiz bat nator laburpen horrekin. Nik uste dut aldaketa bat eman dela derrigorrean, birusak behartu gaituelako bizimodua aldatzera, baina oraindik ez gara jarri pentsatzen nola egokitu egoera berrira. Guzti hau nola artikulatu pentsatzen hasi beharko genuke. Baliabideak eta bitartekoak hobetuko ditugu etxetik lan egiteko, baina egoera hau luzatzen bada, pentsatu beharko dugu horrelako ekimenak nola monetizatu. Herritarrek kontzientzia hartu behar dute sortzaile horiek lanean ari direla eta ezin dutela haien lana debalde kontsumitu. Hau da, etxetik kontzertu bat entzun nahi duenak ordaindu egin beharko du. Ez du beharbada areto batera joanda ordainduko lukeen kopuru bera ordaindu beharko, sarreretan batzen den diru horrekin jende askoren lana ordaintzen delako eta kontzertu hori etxetik emanda ez dagoelako hainbeste lagunen soldata ordaindu beharrik, baina kulturazaleak ezin du pentsatu debalde gozatu behar duenik kontzertu hori. Dena bezala da. Zinemara joateagatik 8 euro ordaintzen ditugu, eta etxean Netflix izateagatik, 3 euro. Hori ere ez da

"Nahi edo ez nahi, etxetik ezin dugu gure onena eman, eta horregatik, gure sormen-lana diluituta agertzen da"

debalde. Baina, bai, bai, Haizea Barcenillak arrazoi osoa du: sortzaileei eskatzen ari zaigu edukiz betetzeko itxialdi hau, konfinamenduan asper-asper eginda dagoen jendea entretentzeko, baina guk, sortzaileok, energia asko xahutzen dugu lan horretan. Gainera, nahi edo ez nahi, ezin dugu gure onena eman dauzkagun baliabideengatik eta, eta horregatik, gure sormen-lana diluituta agertzen da, homeopatia bera bezala. Zuzenekoak gustatzen zaizkit, eta orain, streaming bidez edo dena delako bidez emango dudana, kontzienteki egin ala inkontzienteki egin, ez da izango nik eman dezakedan dena edo eman dezakedan onena.

♦ **Luze joko duen itxura du honek. Zer aurreikusten duzu?**

Ez dakit. Honek errotik aldatu du dena, eta lehengora bueltatzea oso zaila izango dela iruditzen zait. Gertatu zaigun honek kontsumitzeko moduak aldatuko dituela uste dut eta naturalizatu egingo dela kultura etxean kontsumitzea. Koronabirusa gurera iritsi aurretik naturala genuen kontzertuetara edo antzokira joatea, baina orain, ohitzen ari gara modu telematikoetara eta iruditzen zait hori dena monetizatu beharra dugula, jende askoren pentsaera aldatu behar dela eta kostako zaigula. Oraindik jende askok pentsatuko du Internet bidez ikus dezakeen antzerki bategatik ez duela zertan ordaindu, eta horrek kulturaren azkena dakar. Beraz, azpiegitura oso bat behar da horrela lan egiteko, eta aldi berean, pentsamolde-aldaketa bat ere bai.

♦ **Kulturgintzaren ekosistema osatzen duten eragile batzuek Covid-19ri aurre egiteko komunikatua adostu dute. Mahai tekniko bat osatu dute eta zuzeneko kulturarekin lotutako erakunde publiko eta pribatu guztiei egin diete mahai horretara batzeko gonbidapena. Beharbada hori izan daiteke bide bat zuk diozun horretarako?**

Bai. Kulturgintza osatzen duten ahalik eta eragile gehienak batu behar dira estrategiak pentsatzeko eta adosteko, eta jakina, Jaurilaritza eta politikariak horra batzea ezinbestekoa iruditzen zait, ehun industrial handi bat dagoelako hemen arriskuan, baina ez jakintasunagatik edo interes faltagatik, industria horretako parte handi bat ez delako kontuan hartzen eta prekarietatea izugarria delako. Askotan iruditzen zait kulturari ez zaiola behar besteko garrantzirik ematen, min handirik ematen ez duen zerbait delako. Traba handirik egiten ez duen ume bati eman ahal zaion tratua ematen diote askok kulturari eta iruditzen zaie tarteka kasu pixka bat eginda nahikoa dela.

OHARRA: Elkarrizketa hau egin ostean, ehunka kulturgilek greba digitalerako deia egin zuten martitzen eta eguaztenerako (apirilak 21 eta 22). Bi egun osoz ez dute Interneten kultur edukirik eskegiko.



Marian Elizburu Kortaberria

2020ko apirilaren 11n hil zen, 67 urte zituela.

Une latz hauetan bat egiten dugu sendiaren saminarekin.

Elgoibarko preso eta iheslari politikoen aldeko mugimendua



Marian Elizburu Kortaberria

2020ko apirilaren 11n hil zen, 67 urte zituela.




**Ardo gorri, ardo beltz,
patata tortilla,
azeituna, irrifar
solas, iskanbila...
Zure barra ertzera
emakume pila
gerturatu ohi ginen
poz ta arnas bila.
Orain joan zarenean
tristura isila...
Maitasuna airean
gelditu dadila.**

Maite izan zaitugun emakumeak

Marian Elizburu Kortaberria

2020ko apirilaren 11n hil zen, 67 urte zituela.



*Antxonen bokadilloak
ta zure tratu xumea,
ta gure artean uzten
diguzun zure semea.
Eskuzabala, goxoa,
pazientziaz betea.
Ez zaitugu ahaztuko
zu eta zure barrea.*

Irribarre bero bat, Marian.

HARITZEN LAGUNAK



Antonio Leon Navarro

2020ko apirilaren 14an hil zen, 53 urte zituela.

***Zure bizipoza eta irribarrea
lagun taldeko balio handiko ondarea,
zu ezagutu izana izan da
guretzat ohorea.***

Beti gure bihotzean,
kuadrillako eta betiko lagunak





III. URTEURRENA

Jose Ignacio Sarasua Garate

2017ko apirilaren 11n hil zen, 60 urte zituela.

***Zure oroimena
beti izango da gure bihotzetan.***

Familia



III. URTEURRENA

Jose Ignacio Sarasua Garate

***Izan zarenagatik
eta erakutsi duzunagatik,
ez zaitugu inoiz ahaztuko.***



HARITZ



III. URTEURRENA

Jose Ignacio Sarasua Garate

Zure oroimenak indartzen gaitu.



ELGOIBARKO UDALAREN
TXISTULARI TALDEA

LANA.....
Eskaerak

Eskola partikularrak emateko edo umeak zaintzeko prest nago. Elgoibartarra naiz eta Magisteritza ikasten ari naiz. ☎ 684 221 398

Adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta beharrezko titulazioa ditut. ☎ 640 742 618

Garbiketa lanak egingo nituzke, etxeetan edo elkar-teetan. Orduka. Esperientzia daukat. ☎ 637 102 725 / 943 741 410

Persona nagusiak edo umeak zainduz egingo nuke lan. Esperientzia eta erreferentziak ditut. ☎ 631 895 039

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan. ☎ 637 137 104

Adinekoak zainduko nituzke, gauzez ere bai, ospitalean zein etxean. ☎ 631 782 442

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat eta etxeko zaintzako titulua. ☎ 685 724 861 / 943 748 899

Lan bila nabil: adinekoak zaintzen eta garbiketa lanetan esperientzia daukat. ☎ 631 895 039

Eskola partikularrak ematen ditut: LH, DBH eta Batxilergoko matematikak, kontabilitatea, ekonomia finantzak... ☎ 666 042 710

ETXEBIZITZAK.....
Alokairua

Bikote elgoibartarrak arrazoizko prezioa duen pisua hartuko luke alokairuan. Etxe baten jabea bazara edo etxea alokairuan duen norbait ezagutzen baduzu, deitu mesedez. ☎ 619 966 696

BESTELAKOAK.....
Offiprix markako sei mahaiko mahai multzoa salgai. Oso egoera onean. 600 euro. ☎ 688 634 044

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.

IRAGARKIARI ERRETRATUA JARRIZ GERO, 6€ GEHIAGO ORDAINDU BEHAR DIRA.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.

IRAGARKIARI ERRETRATUA JARRIZ GERO, 5€ GEHIAGO ORDAINDU BEHAR DIRA.

BARREN sare sozialetan

facebook.com/barrenaldizkaria twitter.com/barreneus instagram.com/barrenaldizkaria

administradores Consejo Escolar de Colegios de Administradores de Empresas Fundación Española Administradores Sociales Económicos

ROSA Ma PINTADO

Etaldeen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gas-hornitzailea dugun enpresak jakinarazi digu gas-kontagailuetara iristeko plataforma bat jarri beharko genukeela, segurtasun arrazoiak tarteko. Gaur egun, kontagailu horiek patio batean daude, eta portaletik sartzen da hara, baina horretako zoria lokal baten teilatua da. Lokal-jabe horrek ez du uzten bere teilatu horretan fatxadari lotutako inongo plataformarik jartzten. Jakin nahiko nuke lokal jabe horrek eskubiderik duen uko egiteko, jakinda instalazio hori gabe ezingo direla kontagailuak irakurri.

Teilatu gainean plataforma bat jartzea ez da uko egiteko arrazoia, plataforma hori fatxadari lotuta egonda, eta nire iritziz, fatxadari lotuta egon ezta ere ez luke uko egiteko arrazoi izan beharko, teilatu-zoru hori elementu komuna delako. Gainera, estrukturari eragiten dion elementua izanda ezingo lioke komunitateari kalte-ordainik eskatu. Legez, etxe-jabe guztiak behartuta daude euren etxe eta lokaletan eraikinak eskatzen dituen obra eta bestelakoak egiteko baimena ematera. Eskubidea hori bai, obra horiek sortzen dizkieten kalteen ordaina eskatzeko komunitateari.

Aholkua: Egin nahi duten hori elementu komun batean egin beharreko ezinbesteko obra izan ala ez, komunitate horrek legez ezarritako baldintza bat bete behar badu, jabeak hori derrigortuta dago baimena ematera.


ASESORIA GO/R AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2




Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Alaine**, apirilaren 7an 10 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiakoen partez.




Zorionak, **Nahia**, gure printzesa, apirilaren 23an 11 urte beteko dituzulako. Muxuak, Elgoibarko familiakoen partez.



Zorionak, **Xabat!** 10. urtebetetzea modu berezian ospatzea tokatu arren, ondo pasatuko dugu. Egun ona izan!



Zorionak, **Eulali**, hilaren 5ean 8 urte bete zenituelako. Etxean ospatu dugu, gure modura. Muxu bat aitaxo eta amatxoren partez.



Zorionak, **Luken**, apirilaren 9an 7 urte egin zenituelako. Muxu asko familiakoen partez.



Zorionak, **Libe**, atzo 4 urte bete zenituelako. Laster gara berriro plazan edo mendian saltoka, eta laster Erentzan ere, lagunekin batera zure urtebetetzea bigarren goz ospatzen! Paaa.



Zorionak, aittitta **Santos!** Egun berezi honetan ezin gara zurekin egon, baina ahal dugunean, familia guztia bilduko gara zure 97. urtebetetzea ospatzeko. Maite zaitugu! Etxekoak



Zorionak, ama, amama, **Karmen!** Hau dana pasatzen darian berri ere alkartuko gara, eta zuri 79 muxu eman ondoren, jan-edanian gozatuko dogu, orain arte moduan. Etxekoak.



Zorionak, **Ibon!** Azkenean iritsi zaizu eguna! 6 urte! Muxu handi bat familiakoen partez.



Zorionak, **Jon!** Gure txikiak bi urtetxo atzo! Maite zaitugu. Etxekoak.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, +edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK		Egunez: 09:00-22:00	Iluntzean: 20:00-22:00	Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
17 BARIKAKUA	18 ZAPATUA	19 DOMEKA	20 ASTELEHENA	21 MARTITZENA	22 EGUAZTENA	23 EGUENA	24 BARIKAKUA
Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea
Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea

*** Fernandez:**
Herriko enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

*** Ibañez:**
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

*** Oruesagasti:**
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guzian, gavez: 22:00-09:00
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)
943 206 984

Apirilaren 1etik 15era hildakoak

<p>. Elena Celaya Altzola 53 urte. Apirilaren 8an hil zen. Elgoibar.</p>	<p>. Carmen Ferrer Ruiz 85 urte. Apirilaren 10ean hil zen. Elgoibar.</p>	<p>. Maria Teresa Ayerbe Berazueta 80 urte. Apirilaren 13an hil zen. Elgoibar.</p>
<p>. Jose Luis Urbiola Elosegui 86 urte. Apirilaren 9n hil zen. Elgoibar.</p>	<p>. Marian Elizburu Kortaberria 67 urte. Apirilaren 11n hil zen. Elgoibar.</p>	<p>. Antonio Leon Navarro 53 urte. Apirilaren 14an hil zen. Elgoibar.</p>
<p>. Jose Mari Azpillaga Izeta 88 urte. Apirilaren 10ean hil zen. Elgoibar.</p>	<p>. Matilde Urizar Garitaonandia 92 urte. Apirilaren 12an hil zen. Elgoibar.</p>	<p>. Amparo Cruz Romero 93 urte. Apirilaren 14an hil zen. Elgoibar.</p>



June
Marcilla
Merino,
8 urte,
Elgoibar

"Egun zoriontsu bat"



Aietz
Arizmendi
Gandarias,
6 urte,
Elgoibar

"Sagarrak eta udazkena asko gustatzen zaizkit"



► Gremioen gida

ARROZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Albixuri industriagunea, 1-0/ 1-P
943 740 547



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9
20650 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com



Olaso industriagunea, 17 beheak
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com



Aroztegia Carpinteria



Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

ITURGINTZA



BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Uruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
itenda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA

San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR



Fontanería
Ibámar
ITURGINTZA

San Roke, 10-A, beheak B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net



Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com



ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.
Igor Santana
Urazandi kalea 17, beheak
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

ERREFORMAK



Erosario kalea, 15 beheak - Elgoibar

- ◉ Proiektuak eta erreformak
- ◉ Sukaldeak
- ◉ Gremioen koordinazioa
- ◉ Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168

IGELTSERITZA



Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 beheak - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

- Igeltseritza
- Pintura

ELEKTRIZITATEA



Uparitzaga, 10, 6.B
Elgoibar
karranza@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999



Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Uruzuno, 14 beheak
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

- Leihoak
- Iturgintza
- Elektrizitatea

- Aroztegiak
- Erreformak

Nola egiten diogu aurre COVID-19ari Gipuzkoan?

1. GIZARTE ZERBITZUAK: txoke plana

COVID-19aren harira prebentziorako zerbitzuak eta informazio-sistemak indartu dira.

Telezaintza:
900 43 43 43



- COVID-19 testuinguruan zerbitzuak jasotzeko eta orientaziorako.
- Zentroetako erabiltzaileak aldi baterako etxera itzultzeko kudeaketa lanak.
- Egoitzatako langileria ostatu emateko zerbitzuaren informazioa eta eskabideak.
- Familiei eta langileei laguntza psikosoziala.

Herritarren arreta:



- **943 11 25 11**
- info.gizartekintza@gipuzkoa.eus
- Indarkeria matxistaren biktimentzako arreta:
900 840 111

2. EKONOMIA SUSTAPENA: autonomoak eta enpresak

Jarduera ekonomikoen inguruko informazio guztia zure esku jarri dugu eta prozesuan laguntzeko entitate sare zabala osatu dugu.



Osasun laborala



Laguntza publikoak



Arlo laborala



Zerga arloa

3. OGASUNA: ordainketak eta datak

Autonomo eta enpresentzako neurriak.

Zergadun guztientzako neurriak.



Autonomoen PFEZaren ordainketa zatikatuak

Ez da autolikidaziorik aurkeztu behar (1. eta 2. hiruhilekoak).



Gerorapen berriak

300.000 euro arte handitzen da modu automatikoan geroratu daitekeen zorraren zenbatekoa.



1. hiruhilekoko zerga ordainketa

Lehen hiruhileko zerga ordainketak ekainaren 1era atzeratzen dira enpresa txiki, mikroenpresa eta autonomoentzat.



Errenta online

Herritar guztiek etxetik mugitu gabe aitortpena aurkezteko bideak ahalbidetu dira.

www.gipuzkoa.eus

Guztion lankidetzara eta ahaleginarekin, lortuko dugu.



GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN